

LIBURU ESKAITZA

2025_{ko} Uda

æek


Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre



Liburuak irakurriz eta irakurriz dena ikasten zela uste zen antzina. Gaur egun badakigu den-dena ez dagoela liburuetan; euskara ikasteko ere liburuak baino gauza gehiago behar ditugu, bai. Halere, liburuek hortxe jarraitzen dute eta, guzti-guztia ekarri ez arren, kontu ugari aurkituko dituzu.

Batzuek euskara ikasten lagunduko dizute: euskaraz idatzitako istorioek, historiak eta poemek. Horietan, benetako eta fikziozko euskaldunak zuri mintzatuko zaizkizu liburuetako hitzen bidez, eta irakurriko dituzu hainbat izen, aditz, berba, pasarte eta paragrafo zuretzat patxadaz prestatuak, patxadaz irakur ditzazun.

Beste batzuek, berriz, euskara ikasten ari zarela ahantzaraziko dizute. Ezagutuko dituzu lekuak, pertsonak, istorioak eta sentimenduak: poza, beldurra, barrea, harridura... Murgilduko zara letren itsaso batean, eta hantxe gozatuz euskara ikasiko duzu euskara ikasten ari zarela ahaztuta.





OSTEGUNAK

Jon Arretxe

Euskal literatura serioa iruditzen zaizula? Ez zarela inoiz dibertitzen liburu bat irakurtzen? Orduan ez duzu Ostegunak ezagutzen. Jon Arretxeren lan hau umorearen, "desmadrearen", ondo pasatze axolagabearen apologia hutsa duzu, alde guztietatik.

Maila: B1-B2

Urtea: 1997

Orr: 112

Prezioa: ~~17,35~~ - 14,75 €



GURPILAK

Eztizen Artola Iturrate

Autoa, haurra, bidaia. Zenbat falta da? Nola azaldu distantzia ume gosetu, nekatu, urduri bati. Nola neurtu denbora? Zenbat abesti, zenbat urtebetetze, zenbat herri-izen kabitzen dira espetxealdi batean? Kartzelara bisitan joatea ohitura baino gehiago bizimolde duen haur bat, gero nerabe, gero gazte. Eta kartzelan baizik ikusten ez duen aita. Xalotasunetik abiatzen da liburu honetako narratzailea, berak aukeratu ez duen matazan puskaz puska bidea aurkitu nahian. Mansilla de las Mulas. Daroca. Aranjuez. Etxea. Ezin ulertuak, gaizki ulertuak eta ulertu nahi ezak. Etxe izandako kartzela nola bihurtzen den badena. Errepide bazterreko jatetxeak eta harrapaketan jolastea. Etxea!

Ume motxiladun baten bizipenak jaso ditu Eztizen Artolak bere aurreneko nobelan. Denboran luzatutako sakabanaketan murgildu, eta orain arte literaturan kontatu gabeko espazio bati hitzak jarri.

Maila: B2

Urtea: 2024

Orr: 144

Prezioa: ~~16~~ - 13,60 €



KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL

Joxean Sagastizabal

Umorea da eleberri honen ardatza. Umorea literatur tratamendu egokiz egina, estilo arinez, generoaren arauetikiko berritzaile, eta beste berezitasun garrantzitsu batekin: arrakasta. Giharren bat ukitu izango du liburu honek euskaldun berri edo zaharberrituen gorputzean, nork bere burua identifikatua sentitzeraino pasarteren batean edo bestean. Izan ere euskal belaunaldi baten ispilu konplexurik gabea da Kutsidazu bidea, Ixabel.

Maila: B2

Urtea: 2006

Orr: 126

Prezioa: ~~12,90~~ - 11 €



KOADERNO HANDIA (EGUNERATUA)

Agota Kristof

Ikasketa-prozesu baten lekuko egiten gaitu Koaderno Handiak. Pertsonaia nagusien, bi anaia bikien, ikasketa-prozesua da. Hirurogeita bi atal laburretan zehar, zer ez digute kontatzen. Eta nola. Liburuak jakin-mina pizten du. Erakarri eta berarekin eramaten du irakurlea liluraturik. Edonor harritzen baitu horrelako gertaera lazgarriak hain xalo kontaturik entzuteak. Xalotasunaire hori lortzeko, Agota Kristofek haurren idaztancara antzeratzen du. Irakurketa amaitu eta gero, liburuia itxi eta gogoetatsu geratuko gara, irria ezpainetan eta galderaren bat buruan jauzika. Gaiztoak eta ankerrak al dira? Zer da Ongia?; zer Gaizkia? Non ditu Etikak mugak? Nork du munstro-izaera, mutikoek ala inguruan duten gizarteak? Besteaz gabetua izan den baten errailetako garrasia ote da Koaderno? Umore beltz ederrez zipriztinduriko garrasia betiere. Liburu apala, xumea; eta, bere xumean, sakon ere.

Maila: B2

Urtea: 2022

Orr: 200

Prezioa: ~~14,90~~ - 12,70 €



ARRAIN HEZUR BAT EZTARRIAN (XXIV IGARTZA SARIA)

Olatz Mitxelena Larreta

On asmoz abiatu eta hondamendian amiltzen diren txangoak, edo itxura negargarria izan arren amaiera gozoa hartzen duten festak. Ezer ez da dirudiena istorio hauetan: errealistak batzuk, fantastikoak bestetzuk, beti dute gorderik ustekabearen harra, bolante kolpea, magiaren printza.

Maila: B2

Urtea: 2023

Orr: 136

Prezioa: ~~15,60~~ - 13,25 €



ERESIA

Goiatz Labandibar

Aitzol Agirreren alaba Talak urruntasun ironikoaren eta min esanezinaren artean biziko ditu aitaren heriotzaren dolu egunei dagozkien fase eta zeremonia guztiak: etxean, beilatoki intimoan, herriko hil-kaperan, Euskal Herri osoa zeharkatuko duen biran, agur ekitaldi instituzionalean eta mendi tontorretan eskainiko zaion agur herrikoian.

Gizon publikoen gabezia pribatuak, familia-ereduak, kausa nobleen alde sakrifikatzen direnak eta beste hainbat gai lantzen ditu egileak, umore bixiz eta behako zorrotzez, eleberri labor baina sakon, esanguratsu bezain dibertigarri honetan.

Maila: B2

Urtea: 2025

Orr: 112

Prezioa: ~~13,50~~ - 11,50 €



JENISJOPLIN

Uxue Alberdi

Jenisjoplin, Uxue Alberdi: Baldintza makurrei aurre eginez zaildutakoa da Nagore Vargas, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatzen ohitua: autoritatearen kontra, benetakotasunaren bila, desfazioek inarrosirik, barne bulkadaz, presaka maitatzen, bortizkeriari artez begira, arriskuari deika, edozertarako prest.

Bilbora iritsi zenean hiri bat gatazkan zeukan deskubritzeko; zenbait iraultza eta abentura, engaiatzeko; gorputz bat, biolentziaren eta erotikaren artean jokoan jartzeko.

Klasearen, aberriaren eta sexuaren izenean nork bere amorrua bizkortzen zuen garaiak gozatu zituen Nagorek. Baina orain, 2010eko irailean, 28 urte dituela, Artxandan dago Libre irratiko hiru lagunekin, azken bilkura moduko bat antolatu dute, jakinaren gainean segika dituztela txakurrak, preso hartuko dituztela ziurrenik eta itxi egingo dutela irratia.

Maila: B2/C1

Urtea: 2017

Orr: 296

Prezioa: ~~20~~ - 17 €



MUNDU ZITALAREN KONTRA

Lizar Begoña Madariga

"Kiosko bat Benidormen, hondartzako pasealekuaren aurrean, garai batean egunkariz eta bezeroz mukurru, gaur egun ahaztutaren eta dekadentziaren ikur bihurtua. Eta bertan bi emakume lanean, goiz eta arratsaldeko txandetan: Pilar, XX. mende erditsuan kioskoa ireki zuen arrantzalearen alaba, ahizpa zahar elbarriarekin bizi dena; eta neska gazte bizkaitar izenik gabeko bat, udan lantxo bat izateko hara joana, bere barruko lainoengandik ihesi akaso. Bi bakardade paraleloren kontaktaren bidez, egungo gizartearen erretratu zorrotz bat egiten du egileak: identitate lausoak, harreman zehaztugabeak, helburu eta esperantza argirik gabe noraezean ibiltzea. Lizar Begoña begirada eta estilo propioak erakusten ditu Igartza sariari esker idatzitako bere lehenengo eleberri honetan.

Maila: C1

Urtea: 2024

Orr: 128

Prezioa: ~~14,80~~ - 12,60 €



PLEIBAK

Miren Amuriza

Nerabe paisaia rural-poligonero bat, institutuko korridore atemporalak, Morora busean jaistea eta belodromora motorrean igotzea, Hemendik At, Chenoa, Su Ta, lokaleko maromoak eta txosnetako Goi Gerlariak, Largo eta Beda Agarreko sukaldean, erantzun gabeko perdidak, behor hezurrak, istripu bat.

Umezaroa elkarren itzalean zabuka igaro ostean, gaur da eguna kalean gurutzatu eta bata bestea ignoratzen dutena. Distantzia horrek sorrazten dion amorrazio retroaktiboak sakatuta zuzentzen zaio Jone Pollyri; neskatoan, ahoak nola-hala estali eta eskugaina eskugainaren kontra igurtziaz musukatzen zuen txaleteko bizilagunari.

Ezer gertatu ez zenean gertatu zen guztia jasotzen du Miren Amurizaren bigarren nobelak, egonezin primario bat, partekatua izan zen bide baten adarkatzea. Sasoi baten erretratua da kontakizun hau, belaunaldi bat ordezkatzeko duten erreferentzia ugariarekin eta zikinak jandako hizkuntza batekin eraikia.

Maila: C1

Urtea: 2024

Orr: 160

Prezioa: ~~17,50~~ - 15 €



PAZIENTE ISILA

Alex Michaelides

Arrakasta handiko margolari batek Alicia Berenson– bere senarrari bost tiro jo, eta mutu dago harrezkeroztik. Eta hitz bakar bat ere esan nahi ez izate horrek misterio handia bihurtu du etxeko tragedia bat besterik ez zena. Kasuarekin tematuta dagoen psikoterapeuta batek –Theo Faber– zoritxarreko gau hartan gertatutakoa argitu nahi du, eta Londres iparraldeko The Grove zentro psikiatrikoan hasiko da lanean hilketa gertatu eta handik sei urtera. Aliciak isilik jarraitzen du, baina Theo berehala ohartuko da uste baino askoz gehiago dagoela ezkutuan jarraera horretan. Eleberriak –thriller psikologikoa eta tragedia grekoa aldi berean– berehala harrapatuko zaitu, eta, bide batez, gogoeta eginaraziko dizu sakoneko gai batzuen gainean: iraganaren zauriak, haurtzaroak uzten digun arrastoa, afektuaren beharra, osasun mentala eta zaurgarritasuna, isiltasunaren indarra, erotasunaren erroak...

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 376

Prezioa: ~~29~~ - 19,50 €



BORRERO TXIKI BAT

Xabier Mendiguren Elizegi

Zer sentitzen du Intxaurrondoko kuartelean bizi den haur batek? Nola pentsatzen du 80ko hamarkadan Guardia Zibilaren kaserna izugarri hartan hazitako gazte batek? Beldur ote da gauetan? Jabetzen ote da beretarrek eragiten duten beldurrak? Ze harreman du handik kanpoko neska-mutilekin?

Besteren larruan sartzeko ariketa deigarri bat egin du egileak, eta enpatia horretatik pertsonaia konplexu bat sortu, gure herriaren itzalgune zenbaiti argia emateko, gure historiaren pasarte ezezagun batzuk agerira ekartzeko. Bere laburrean intentsitate handiko nobela bat da hau, teknika-aldaketa eta gidoiaren biragune usteka-bekoei esker irakurlea erne mantenduko duena amaierara iritsi arte. Eta agian luzaz pentsaraziko diona gero, irakurritakoaz.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 108

Prezioa: ~~19,50~~ - 11,50 €



AMAIERATIK HASI. EUSKAL FEMINISMOA, ALDAKETARAKO PARADIGMA

Naia Torreal dai


Iberdrolak bere dorrea morez argiztatu zuen martxoak 8 hura mugarri izan zen euskal feminismoan: mugimendu feministaren agortzea bera ikusi zuten askok ekintza hartan. Feminismoa balio multzo soil gisara ulertzetik harago, orde, perspektiba zabalduz problematizatu behar da. Bide horretan, euskal feminismoak emandako genealogia eta analisisirako begiradatik, liburuxka honen anbizioa da feminismoa askapenerako (bai nazional, bai sozial-kultural) paradigma izendatzea. Horretarako, Euskal Herrian feminismoetatik bizitzen ari garen korapiloei izen-abizenak jartzeaz gain, gogoeta pertsonal eta konpartituak biltzen ditu, teoria hutsean geratu gabe, jarduteko intuizio eta bide posible batzuk azalduz. Minak jaurtigai legez erabili beharrean, emozio kolektiboak politizatu eta guztiontzako askatzaileak izango diren proposamenak egitea beharrezkoa baita

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 120

Prezioa: ~~12~~ - 10,20 €



BIDASOAN GORA

Karlos Linazasoro Izagirre

Urak egiten duen ibiliaren kontra, ibaian gora abiatu da Eneko Aizpurua: Txingudiko badiako paduretan hasi eta Xorroxingo iturrian amaitu arte, bazterrik bazter ibiliko ditu Bidasoko urak eta lurak, paisaiari eta paisaiariei beha.

Bidaiaariaren gogotik eta begietatik igaroko dira aspaldiko kontrabando-istorioak eta migratzaileen trafikoarenak, Barojaren eta Aitzolen estualdiak gerra zibilean, naziengandik ihesi ibilitako juduen eta aire-pilotuen gorabeherak, Zabalzaren eta Lopezen fin gaiztoa Endarlatsan, mugalariak, baserritarrak, eruditoak, filantropoak, faxistak...

Begirada amultsu eta aldi berean zorrotza elkartzen ditu egileak, bizitakoaren lekukotasun zuzena eta irakurketa ugariek emandako jakituria, pasadizo xeheak eta gogoeta sakonak, guztiak egoki nahasturik liburu atsegin eta mamitsua osatzeko, berezi bezain gogoangarria.

Maila: C1

Urtea: 2020

Orr: 240

Prezioa: ~~22,50~~ - 19,15 €



CARVALHO EUSKADIN

Jon Alonso Fourcade

Iruñea, 2016. Gobernu autonomiko berriak goi mailako kultur jardunaldi bat antolatuta du, eta Sanchez Godin intelektualak ezusteko bat ematekoa da bertan: Manuel Vazquez Montalbanen nobela argitaragabe bat agertu da, Carvalho Euskadin izenekoa. Ezustekoa, ordea, nobelaren bat-bateko desagertzeak emango du, eta Jon Alonsoren protagonista ezagunaren, Enekoitz Ramirez Lanbasen, esku geldituko da kasua.

Bartzelona, 2003. Pepe Carvalho detektibea Ramblei begira dago, Guadalupe Agirre euskal enpresari handienetako baten enkargua jasoko duenean: 1982an desagertu zen Kokotxa militantearen neska-laguna aurkitzea. Ordainsari altua eskainiko dionez, aurrera egitea erabakiko du Carvalhok, giro arraro baten erditik: esan gabekoak, paper misterioitsuak, jarraipenak...

Bi nobela batean harilkatu ditu Jon Alonsok lan berrian, hari beltzez harilkatu ere, Euskal Herriko politika, janariaren zeremonia, historia hurbila eta literatur munduaren argi-ilunak lotuz.

Maila: C1

Urtea: 2023

Orr: 296

Prezioa: 20 - 17,00 €



EHUN ZALDI TROSTAN

Ainhoa Urien Telletxe

A-8 autopistaren mutur batetik bestera bizi da kontakizun-sorta honetako protagonista, hiriaren eta baserriaren artean, bakoitzak bere nortasunaren alde bat elikatzen diola. Era askotako indarrek egiten dute talka bere baitan: habitat motek, harreman klase askotarikoek, erreferentzia kultural desberdinek...

Irenegandik abiatu eta pertsonaia-gama ñabar bat zabalitzen da istorio hauetan zehar, denak ere txirikorda batean korapilatuta, ipuinetik eleberrira doan bide batean legez. Gutxitan bezalako hizkera zehatz eta aberatsez ondua da Ignacio Aldecoa beka irabazitako lan hau, kontatzen duen munduari guttiz doitua eta lotua.

Maila: C1 **Urtea:** 2025 **Orr:** 148 **Prezioa:** ~~15,50~~ - 13,20 €



ANTROPOZENOAREN NOSTALGIA

Patxi Iturregi

Hotel-garbitzaile esplotatu baten larriak, kriptomoneten meatzaritzaren gorabehera ilunak, adimen artifiziala entrenatzeko esperimentu hala moduzkoak, gizakien eta makina adimentsuen arteko interakzio problematikoak, Lur planeta aspaldi suntsituan lagin arkeologikoak jasotzera datozen kosmonautak

Egungo munduan nahiz balizko geroan kokaturiko 16 istorio hauetan Patxi Iturregik, askotariko argumentuak asmatzeko irudimen oparoaz gain, bakoitzari dagozkion hizkuntza doia eta ikuspuntu aproposa sortzeko dohaina erakusten du, obra zabala osatua duen puntako ipuingilearen eskarmentua eta gizartearen aldaketa etengabea erne dagoen begirada gaztea bikain uztarturik.

Maila: C1 **Urtea:** 2025 **Orr:** 176 **Prezioa:** ~~17,50~~ - 15 €



LEHERTU BAINO LEHEN

Iñaki Irasizabal Izagirre

Erik eta Aroa, editorea bata eta erizaina bestea, bikote gaztea, oro har ondo konpontzen dena, baina badituzte tentsiogune batzuk ere. Harremana onbideratzeko estrategia bat pentsatuko du Erikek, baina gauzak okertu egingo dira, ustekabeen.

Hortik aurrera, beste norabide bat hartzen du eleberriak, eta thrillerraren misterioarekin batera dilema moralek hartzen dute nagusitasuna: besteaz fidatu ala barruan gorde; egia osoa aitortu ala zain egon, okerreina pasatu arte.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 108

Prezioa: 12 - 10,20 €



AMORANTE FRANTSESA

Miren Agur Meabe

“Bioletak hazten zaizkit ezpainen bueltan. Udaberriko / euriak bustita./ Beren urdinak gogorarazten dit/ zein ederrak / izan daitezkeen/ bakarrik dauden gauzak”. Nola irakurri Diane Wakoski izeneko poeta baten hitzak hilda agertu den ikasle baten pusken artean?

Egunero etxerakoan bizkar gainera igotzen zaizkion itzalez inguratuta bizi da, basoan, kontakizun honetako protagonista, Agurtzane. 60 urte beteak, atezaina da ikastetxe batean eta bi egiteko nagusi ditu: osasun mental arazoak dituen ahizpaz arduratu eta berriz loratzeko sentitzen duen irrika asetu. Irati Beraza ikaslearen gorpua Artxandan agertu izanak, orde, detektibe amateur bilakatuko du. Lagunak, txakur adoptatu bat, urtegia, iraganeko absentiak eta maitale berri bat gurutzatuko dira bere bizimoduan. Ezustekoz betetako bakardadea, basoko argi eta soinuekin nahastean.

Poema bidez idatzitako nobela da Miren Agur Meaberen lan hau, pertsonaia arrunt baten epopeia xumea, thriller ukituekin.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 224

Prezioa: 19 - 16,15 €



URTE URDIN IHESAK

Jexux Mari "Txiliku" Olaizola Lazkano

Urte batzuk badiu idazleak dagoeneko; mordotxo bat gehiago haren amak, 100 betetzeko gutxi falta duela. Ama besotik hartuta, etxepera darama, eta kalean honi eta hari begira jarriko dira, begiek sarri oraingo paisaia ez baina garai batekoa ikusten duten arren. Eta garai bateko kontuez solasean hasiko dira, orduko baserri eta tabernak, lan eta jolasak, ikarak eta ametsak... aspaldiko gertaera eta pasadizoez kontu-kontari.

Nonahiko eta noiznahiko jakintza gaietan jantzia den Txilikuk bere geografia hurbilera eta memoria intimora jo du oraingoan, liburu pertsonal bezain unibertsala ontzeko, oroimenaren eta fikzioaren arteko jokoan, eleberriaren eta ipuin-bildumaren erdibide emankorrean, hitzaren magia darian literatur ariketa hunkigarri bezain harrigarrian.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 168

Prezioa: ~~17,50~~ - 15 €



OLATUAK SUTZEN DIRENEAN

Haritz Larrañaga


Zarautz, 1980ko hamarkada. Zehatzago, Bermudako Triangelua edo Barrio txino esaten dioten auzoa, eta Franco hil ondoko urteak. Etxe berera urte bateko aldearekin sortu diren bi anaiaren bizitzari segitzen die Haritz Larrañagaren lehen eleberrak. Haurtzaroa eta heziketa konpartitu arren, bide desberdinei heltzen diete: bata, askatasun indibidualaren bila, itsasoan babestuko da, surfari porrokatu bihurtuta; besteak askatasun kolektiboa izango du helburu, eta borroka armatuaren olatuan murgilduko da. Hartutako bideak paisaia ezberdinetara eramane badiu ere, haurtzaroko auzoak bere lekuan jarraituko du, ez, ordea, mudatu gabe.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 232

Prezioa: ~~17~~ - 14,50 €



LOHIZULO

Aitor Oñate Gardezabal

Marrolo deitzen dute denek, etsai nahiz adiskideek. Pertzero etniako kidea da bera, zehazki txutheen klaneko buruzagia: delitu txikietara dedikaturiko litxarreroak. Bere jendea zaintzen eta negozioak zabaltzen saiatzen da Marrolo, narras bezain alai, eta jarduera horrek Udaleko politikoeekin eskuz esku aritzera eramango du: Aingeru Ajuria alkate demokristaua, azeria baina amultsua; edo Aitziber Ertzilla ezkerreko liderra, etxe barruko kalapitak gobernatzen nahiko lan duena. Hortik aurrera, inork ezin igarri gertatuko dena

Maila: C2

Urtea: 2025

Orr: 204

Prezioa: ~~20,50~~ - 17,50 €



ZARPIEL

Antton Kazabon Amigorena


Paul ikastolako musika-irakaslea egun batetik bestera kale kantoi batean lurrean eserita agertuko da, gitarra jo eta kantuan, eskean. Herri txikiko bizilagunak hain zarpail jantzita ikustean, Zarpiel deitzen hasiko dira. Bizirik hilda dagoela ematen du garai bateko maisu bizizale adoretsuak. Bere bikote harremanak porrot egin ondoren, jo du behea. Bere ikasle ohiak, ordean, ez daude bere zoritxarreen bazter uzteko prest eta zerbait egitea erabakiko dute. Adore eman eta aurrera egiten laguntzeko Paulek berak erabilitako esaldiak berreskuratu eta gogoraraziko dizkiote, sendagai izango zaizkiolakoan.

Maila: B2

Urtea: 2025

Orr: 68

Prezioa: 9,80 - 8,30 €



LURRAREN TAUPADAK

Jon Arretxe

Elezaharrez, antzinako borrokez eta naturaren taupada geldiezinez inguratuta hazi da Aturi, aldi berean bizileku eta etsai izan daitekeen oihanean. Txikitatik, bere herriaren, mukaxien, jatorria azaltzen duten istorioak entzun ditu, eta ehizaren, biziraupenaren eta basoko espirituekiko errespetuaren sekretuak ikasi ditu. Baina bere patua gertaera tragiko batzuek markatuko dute: aitaren erailketak, katananu beldurgarrien aurkako gerrak eta bere erresistentziaren mugara eramango duen erbesteratzeak.

Prosa erakargarria eta erritmo bizia darabiltza Jon Arretxek, irakurlea iniazio eta erresistentziako kontakizun epiko batean murgilarazteko; tradizioa eta magia elkartzen ditu biziraupenaren aldeko borrokaren gordintasunarekin. Lurraren taupadak ez da abenturazko istorio bat huts-hutsik, lurrekiko loturari, arbasoen memoriari eta patuaren bilaketari egindako kantua ere bada.

Espainiako sari nazionalen finalista izan zen.

Maila: B2

Urtea: 2025

Orr: 112

Prezioa: 14 - 12 €



KENAVO, ZAKU BETE URRE!

Iñigo Ibarra

Bertso zahar batzuen hariari tira eginez, gazte batzuk ezustekoz beteriko abentura dibertigarri batean murgilduko dira. Pirata baten altxorra izanen dute jo-muga.

Toki arrotzetan ibiltzea tokatuko zaie, kultura berriak ezagutzea. Tartean, korapilorik latzena bezalaxe, haien arteko harremanak indartu eta sendotuko dira. Umorerik ez zaio faltako kontakizunari.

Maila: B2

Urtea: 2019

Orr: 112

Prezioa: ~~10~~ - 8,5 €



EURITAN (EKE-ELKAR FUNDAZIOA SORMEN BEKA)

Idoia Rodríguez Mondragon

Hamabost urteko neska lesbiana baten egunerokoa da hau. Maitasuna, harremanak, ikasketak, nerabezaroa eta helduaroa ditu hizpide.

Euri deitzen naiz, hamabost urte ditut eta irakasleek diote lotsagabea naizela. Nik esango nuke ausarta naizela, sutsuegia, agian. Bizitza arrunta dut; eskola, gurasoak, adiskideak eta gure lehen maitasun-istorioak dira nire egunerokoa, egun batean, poltsikoan giltza ezezagun bat agertzen den arte.

Eskuetan duzun egunkari hau idazten hasi nintzenean, ez nuen irudikatu ere egin zer norabide hartuko zuen ezustean ikasturteak.

Nerabe izatea ez baita beti hain erraza.

Maila: B2/C1

Urtea: 2025

Orr: 188

Prezioa: ~~16~~ - 13,60 €



ZURRIOLA BEACH HOSTEL

Lur Gallastegi

Zurriola Beach Hostel estatua izango da duela mende bateko bi familien bizipenen agertokia eta haien ondorengo gazte batzuen elkarbizitzaren eta ataka zailen eszenatokia. Gerra batek baldintzatu zituen lehenengoan bizitzak; hiriaren turistifikazioak eta etxejabeen lukurreriak bigarrenak. Jakin-mina piztu eta bukaeraraino eusten dion trama korapilatsu batean nahasita daude guztiak.

Hiriaren turistikazio basatiaren aurkako gazte batzuen borroka.

Maila: C1 **Urtea:** 2025 **Orr:** 156 **Prezioa:** ~~16,50~~ – 14 €



ZOZABARRAK

Maixa Zugasti

Ustekabeko ikasgela-aldaketak hankaz gora jarriko du Juneren bizitza. Indarkeria eta ankerkeria ezagutuko ditu. Eta izua. Udaberrian agertu ziren lehen beldurrak, ahizpa atzerrira joatean. Hala ere, udazkenean, zozabarren etorrerarekin itxiko du haurtzaroko atea betiko. Garai ilun horretan ezagutuko du adiskidetasuna ere, Loretoarena eta Mariarena. Gurasoen itzala ere lagun izango du.

Oraingo honetan, egileak gaurkotasun handiko gaia landu du: gazteen jazarpena, egun, teknologiaren bidez ikastetxeetako hormak gainditu eta biktimen bizitzetako zirrikitu guztietara hedatzen dena.

Maila: C1 **Urtea:** 2025 **Orr:** 80 **Prezioa:** ~~11,50~~ – 9,80 €



ARIAN A1.1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~28,25~~ - 24 €



ARIAN A1.1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~16,50~~ - 14 €



ARIAN A1.2 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~28,25~~ - 24 €



ARIAN A1.2 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~16,50~~ - 14 €



ARIAN A2.1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN A2.1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €



ARIAN A2.2 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN A2.2 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €



ARIAN B1.1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~28,25~~ - 24 €




ARIAN B1.1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €



ARIAN B1.2 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN B1.2 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €



ARIAN B2.1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~24,75~~ - 21 €



ARIAN B2.1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~18,75~~ - 15,95 €



ARIAN B2.2 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN B2.2 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~18,75~~ - 15,95 €




ARIAN C1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN C1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €




TANGOA NOIZEAN BEHIN

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Malena au pair gisa etorri da Buenos Airestik Euskal Herriko kostaldeko familia batera, haurrak zaindu eta etxeko lanak egitearen truke euskara ikastera. Familia horretan dagoen denboraldian, hainbat jenderekin harremanak izango ditu, batzuk atseginak eta beste batzuk mingotsak, eta aspaldi-aspaldi Argentinara joan zen birraitonaren baserria ezagutzeko aukera ere izango du.

Maila: A1 **Urtea:** 2012 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



OTSOA

Josu Lartategi / Pedro J. Colombo (il.)

Otsoa lasai bizi da bere mendi eta zelaietan, elikagaia eskuratu eta familia zainduz. Otsoaren mundura etsai bat heldu da: gizakia. Eta gizakia etsai beldurgarria eta krudela da. Baina zer gertatuko da borroka horretan otsoa ere beldurgarria eta krudela denean? Nor nagusituko ote da?

Maila: A1 **Urtea:** 2012 **Orr:** 62 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



BORROKALARI ARGITSUAK

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Zenbait emakumeren eta horien lagunen, bikotekideen, senideen... arteko harremanen berri ematen digu Borrokalari argitsuak izeneko liburu honek. Gaur egun, gure inguruko edozein tokitan aurki ditzakegu antzeko bizimodu nekoso eta korapilatsuak. Hala ere, pertsonaia guztiak dira borrokalariak: aurrera egin nahi dute, bakoitzak bere bizitza menderatzeko.

Maila: A1 **Urtea:** 2012 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



SIBERIAKO LOREA

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Andre zaharraren bizitza lasaia da. Bat-batean, norbaitek dei mehatxugarriak egingo dizkio. Telefono-dei horiek edozein ordutan izaten dira. Lehengo lasaitasuna infernu bihurtu da. Emakume gaztearen bizitza etorkizunik gabekoa da. Lan nekagarria egiten du telefonía-enpresa batean: ordu asko eta diru gutxi. Baina itxaropen eskaseko bizitza hori gotik behera aldatu da.

Maila: A1 **Urtea:** 2012 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



NAIA CHINATOWN INGURUAN

Alvaro Rabeli / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Naia neska gaztea ez da Archer detektibe famatua, ez da Los Angeles-en edo New York hirian bizi. Naia gure artean bizi da, hemengoa da, titaniozko museoaren ondoan ibiltzen da egunero. Naia emakume langilea eta ikaslea da. Naia hirikoa da, gaurko kultura anitzeko hirian bizi da. Naiak ez du detektibe bokaziorik, baina lan egin behar du bizimodua ateratzeko. Naia zinema beltza da. Naia gure bizitzaren itsasgora eta itsasbehera da. Naiak guk bezala sufritzen du, maitatzen du. Naia Chinatown da, Jack Nicholson gabe.

Maila: A1 **Urtea:** 2013 **Orr:** 76 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



MALETA BAT IGOGAILUAN

Andoni Tolosa "Morau", "Mattin" (il.)

Hectorrek A1 maila egin du euskaltegian eta ikasturte osoa egunerokoan jaso du. Oso pozik dago Hector: lagun berriak egin ditu eta kalean euskaraz hitz egiten hasi da. Biba! Baina ikasturtea ez da beti samurra izan: urduritasuna, poza, lotsa, frustrazioa, harrotasuna, haserrea, maitasuna... emozio-festa da euskaltegia! Eta eguneroko hau, euskaltegitik bizirik ateratzeko formula.

Maila: A1 **Urtea:** 2022 **Orr:** 92 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



OIHENARTEA EZ HUNKI

Bea Salaberri / Adur Larrea (il)

Peiok Oihenartea etxaldean du bizitokia eta lana. Maite du laborari-lana, lurra, natura eta Baigorriko bizimodua. Bere ametsa da horrela bizitzea: zoriontsu da gustuko bizimoduan, maite duen familiarekin eta lagunekin. Baina bat-batean Peio desagertu da.

Non da? Zer gertatu zaio? Peioren desagertze misterioitsuak kezka sortu du.

Gainera Oihenartea etxaldea ere arriskuan da.

Oihenartea ez hunki istorioak misterioa eta elkartasuna lotzen ditu, eta egungo Ipar Euskal Herria eta espekulazioaren arazoaren errealitatea agertzen ditu.

Maila: A1 **Urtea:** 2023 **Orr:** 92 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €




KRESALAREN TABERNA

Miren Agur Meabe / Iñaki Holgado (il.)

Emakume batek taberna bat zabaldu du hondartzan, aldi berri bat hasi nahi duelako. Banatuta dago eta ez dauka haurrik, soilik etorkizun zehazgabe bat. Zer da zoriona? Nola onartu bakardadea? Non geratzen dira okerrak? Horiek dira bere galderatako batzuk itsasoari begiratzen dionean, urtaroz urtaro. Bizitzak, mareak bezala, asko kendu dio, baina agian asko ekarriko oraindik ere.

Maila: A1 **Urtea:** 2017 **Orr:** 68 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €




NAIA ETA ESKULTORE ITSUA

Alvaro Rabelli / Pedro J. Colombo (il.)

Kaleko prostituta batzuk hilda agertu dira errepide-bazterretan. Heriotza horien atzean pertsonen trafiko deitoragarria eta aberastasunaren paradisua aurkitu ez duten etorkinen bizimodu latza daude. Baina, heriotza horietan zerbait gehiago ere ezkututzen da, zerbait iluna eta ankerra, Andre de Toth zuzendariaren House of wax (1953) filmean bezala. Naia detektibe gazteak eta bere laguntzaile Margotek argitu beharko dute.

Maila: A1 **Urtea:** 2018 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ZULOAN BARRENA

Josu Lartategi / Susanna Martin (il.)

Udako goiz epela da. Goxo nago eguzkitan, egonean, baina ibiltzera joango naiz, beti bezala. Gosalduta, emazteari agur esan eta abiatu naiz mendian gora. Halako batean, azeri bat ikusi dut kobazulo batean sartzen, eta azeriaren atzetik sartu naiz ni ere. Baina kobazuloan ez dago azeriaren arrastorik. Berrirori kanpora irten naiz. Orduan, sekulako oihuak entzun ditut: —Geldi! Altxa eskuak!

Soldadu bi dira. Baina, zer gertatzen ari da? Film bat da, txantxa bat, amesgaiztoa? Ez naiz lo geratu... ala bai?

Maila: A1 **Urtea:** 2024 **Orr:** 68 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ATZAPAR ARRASTOAK

John Landon / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Hiru bat metro izango zen altu munstro hura. Gelako sabairaino iristen zen. Begi handi beltzei eta moko luzeari begiratu zien Larryk. Hegazti-mokoa zuen munstroak, baina hegorik ez. Besoak zituen soinetik zintzilik, luzeak eta iletsuak. Eskuetan eta oinetan, berriz, atzapar handiak zituen, gorriorriak. -Atzapar horiek lau lagun hil dizkidate-esan zuen ahots batek.

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 74 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



KATU BELTZA

John Milne / Kepa Orbe Ferreiro (il.)

Ekintzaz betetako detektibe-istorio moderno honen 7 protagonista Salahadin el Nur polizia inspektorea da. Poliziaren barnean, Antzinateko Ondasunen Sailean egiten du lan. Egipton dagoen europar arkeologo bat hilda agertu ondoren, balio handikoa den estatua txiki bat berreskuratzeko ikerketak hasten ditu Salahadinek. Laster jarriko da nazioarteko kontrabandista-talde baten arrastoaren atzetik.

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



NAIA INDIA GORRIETAN

Alvaro Rabelli Yanguas / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Papiroflexia biltzar batera gonbidatuta zegoen gizon bat desagertu egin da ezustean. Haren maitaleak arrastoa galdu du. Naia detektibe gazteak eta Margot laguntzaileak lanak izango dituzte gizona aurkitzen. Hiriko ilunpe ezezagunetara eramango ditu kasuak bi neskak, baita lur azpira ere; hiri honetako aspaldiko india gorrietara, hain zuzen ere.

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ZISNEA ETA UHARTEA

Miren Agur Meabe Plaza / Iñaki G. Holgado (il.)

Kerman Mendizabalek bere historia kontatzen digu. Gaztea zenean, Eguzki lore hotelean lan egiten zuen. Behin, Aste Santuko oporretan, Julia ezagutu zuen eta une bereziak bizi izan zituzten; adibidez, uhartera egindako txangoa. Egun haietan, hain zuzen ere, bitxi-lapurretak gertatu ziren Bilbon, eta polizia hoteleraino heldu zen, galdezka. Egoera larritu egingo da Kermanentzat. Juliak ere alde egingo du. Orain, berrogei urte igaro eta gero...

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



GEMINIKO NEBULOSA

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hidra basera zama misteriotso bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 68 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



LEGARRAREN DESAGERPENEA

Miren Gorrotxategi /Manu Ortega

Telmo Legarra polizia ohia herrira itzuli da, desagertutako alabaren bila hamar urtez Europan barrena ibili ostean. Etsita itzuli da, baina herrian aztarna berriak topatu ditu: Nahia desagertu aurreko Gabonetan ateratako argazki misteriotsoak Aulezti anaiak jarri ditu susmopean. Polizia-senari eutsi ezinik, berriro ekin dio ikerketari. Oraingoan aurkituko ote du Nahia?

Maila: A2 **Urtea:** 2021 **Orr:** 76 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



DAKOTA ERAIKINEAN

Estibaliz Vivanco / Dani Maiz

Deiene Aketxetak New Yorkeko Guggenheim museoa lan-praktikak egiteko gonbite-mezua jaso du. Birritan pentsatu gabe, mezuari baietz erantzun dio. Baina gau horretan bertan, loak hartu ezinik ibili da. Erabaki ona hartu ote du? Ethan Whitefeather Guggenheimeko lan-harremanen arduraduna ezagutzean, gorputzaldi txarra berrituko zaio. Gainera, Markus bekadun-kidea Dakota eraikinari buruzko lana egiten ari da, eta Deienek eraikin enigmatikoaren misterioan sartuta ikusiko du bere burua.

Maila: A2 **Urtea:** 2021 **Orr:** 76 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ISTANBULEN ELKARTUKO GARA

Richard Chisholm / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Han egon zen pixka batean Tom kale erdian, etxe ilun eta isil hari begira. - Anjela! - esan zuen poliki bere artean-. Anjela! Non arraio zaude? Handik metro gutxitara, gabardina grisdun gizona zegoen, atari ilun batean gordeta, Tomi begira. Haren mugimendu guztiak arretaz segitzen zituen... Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hydra basera zama misteriotsu bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

Maila: A2 **Urtea:** 2014 **Orr:** 88 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



TXIMELETAK

Miren Agur Meabe / Iñaki Holgado (il.)

Neska txikia jaio denean, amari tximeleta zuria pausatu zaio bularrean. Sei urterekin, tximeleta more bat marraztu du amabitxirentzat, baina hego bat falta zaio. Zergatik? Geroago, abade batek min izugarria emango dio, eta neska txikiari tximeleta munstroak agertuko zaizkio ametsetan. Etxea erre orduko, tximeleta arreak ikusiko ditu... Tximeletek beti lagunduko diote, une goxoetan eta latzetan. Batzuetan, neska txikiak bera ere tximeleta dela pentsatuko du. Eta badaki argiak hil egiten dituela tximeletak, baina norberaren eraldaketaren sinboloa ere badirela.

Maila: A2 **Urtea:** 2016 **Orr:** 68 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ELURRAREN PROMESA

Miren Agur Meabe Plaza, Iñaki Landa (il.)

Inesek jabetxe batean lan egiten du asteburuetan. Arte Ederretako ikaslea da eta tatuajeak gustatzen zaizkio. Larunbat gau batean istripua izango du bizikletarekin, elurraren erruz. Esnatzean, hala ere, Erdi Aroan aurkituko da eta Inexa izango da denentzat.

Nola itzuli etxera? Nola itzuli XXI. mendera?

Bizitza oso bat pasatu beharko du mundu zahar horretan, zorion eta zoritxarren artean, urteko lehen elurrak berriz ere...

Maila: B1 **Urtea:** 2022 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



IZU-ISTORIOAK

Bram Stoker / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

"Drakula" bezalako izu-istorioak idazten maisu izan zenaren hiru istorio: - Epailearen Etxea - Burdinazko Emaztegaia - Abel Behenaren itzulera Mendekua da gai nagusia eta hirurak dira misteriozkoak eta hotzikara ematen duten horietakoak.

Maila: B1 **Urtea:** 2014 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €




ENIGMAK

Georges Simeon / Bruno Hidalgo Garcia (il.)

Sei detektibe-istorio labur, Frantziako hainbat eskualdetan eta ingurune ezberdinetan kokatuak: G. 7, Altzariak mugitzen zituen mamua, Gorpua desagertu, Hans Peter, Monceau parkeko sutea eta Desagertuen gaztelua.

Maila: B1 **Urtea:** 2014 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



PINKY PAILAZOA

Josu Lartategi Yustos / Alex Orbe Ferreiro (i.)

Kanadaren eta Estatu Batuen arteko baso zabal eta ilunek sekretua gordetzen dute. Nor da Pinky pailazoa? Nola desagerrarazten ditu ume bakartiak? Zer da, bahitzai lea ala hiltzailea? Zergatik egiten ditu halako gaiztakeriak? Richard Smith inspektoreak pista bat du, eta pista horrek Euskal Herrira eramango du.

Maila: B1

Urtea: 2014

Orr: 88

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



TITARE BETE ZORION

Miren Agur Meabe Plaza / Enrique Morente Luque (il.)

Juanek eta Mariak elkar ezagutu dute. Juan maisu erretiratua da, eta Maria, jostuna. Elkarrekin bizitzen jarriko dira, oroitzapenak eta asmoak partekatzeko. Hala ere, garbi dute oraina dela garrantzitsuena. Konpromiso bakarra, batak besteari zorion apur bat ematea. Baina Juan gaixotu egingo da.

Maila: B1

Urtea: 2014

Orr: 88

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



INFERNURANTZ

Estibaliz Vivanco / Aritz Eiguren (il.)

Columbia Unibertsitateko Tom Bradford irakaslea 16 ustekabeen hil eta gero, Gabriel Pritchardek hildako lagunak sortutako CUMAE fundazioa ezagutuko du, Beatrice alargunaren eskutik. Aurkikuntza horrek hainbat ezusteko ekarriko dizkio Gabrieli, eta haren amesgaizto guztiak egia bihurtuko dira.

Maila: B1

Urtea: 2015

Orr: 88

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



AITANA MENDIAREN AFERA

Miren GORROTXATEGI/ Manu ORTEGA (Il.)


Telmo Legarra Pariseko teilatupeko gela txiki batean bizi da, herriitik urruti eta bakar-bakarrik. Aitana Mendia andre euskaldun misterioitsuak lana eskaini dioenean, polizia ohiak ezin izan dio ezetz esan: dirua behar du, eta, gainera, Aitana herrikidea izateaz gain, emakume erakargarria da. Baina zergatik ez du poliziarengana jo? Zer ezkutatzen du afera honek?

Maila: B1

Urtea: 2015

Orr: 88

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



MARATON - ATHLETICEN HISTORIA EZBERDIN BAT

Lufxo Egia / Paul Caballero (il.)

Athleticen historia jokalar handien izenez abiatzen da: Pichichi, Zarra, Iribar... edo, zergatik ez, Aduriz. Athleticen historia hori klubak berak argitaratutako liburuetan ikas dezakegu. Gure istorioa (eta Athleticen historiaren zati ttiki bat), ordea, Bilboko San Francisco auzoan hasten da 1925ean eta emakume bat du protagonista: Sara Estevez 'Maraton'.

Maila: B1

Urtea: 2016

Orr: 60

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



DORIAN GRAYREN ERRETRATUA

Oscar Wilde / Paul Caballero (il.)

–A, bai, zoriontsu gaudenean, beti izaten gara zintzoak, baina zintzoak garenean, ez gara beti zoriontsuak.

Lord Henryren hitz zorrotz eta arriskutsuek mundu beldurgarri batera eraman zuten Dorian Gray gaztea; mundu hartan garrantzitsuagoa zen ederra izatea, zintzoa izatea baino; mundu hartan edozer barkatzen zen, hilketa ere bai, afalostean jendeari barre eragiteko modukoa izanez gero behintzat.

Maila: B1

Urtea: 2017

Orr: 68

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



HISTORIA ALA ISTORIAO?

Nagore Irazustaberrena / Ruth Juan (il.)

Napoleon handia gizon txikia al zen benetan? Zein da erpurua gora keinuaren egiazko esanahia? Egia al da piratek altxorrak lurperatzen zituztela? Nork asmatu zuen gillotina? ...


Historiarekin jolas egiteko irakurgaia duzu esku artean: gertakizun historikoen bi bertsio proposatzen dira, irakurleak asmatzeko bietako zein den zuzena, non dagoen historia eta non istorioa.

Maila: B1

Urtea: 2018

Orr: 79

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



BAIONA

Bea Salaberri / Asisko eta Dom


Baiona ezagutzeko gida da hau: hiriaren aztarnategiek erakusten duten antzinako Baiona zaharrean hasi eta egun sortzen ari diren auzo berrietaraino. Asteburuko ibilbidean bisitatuko ditugu Baionako karrika nabigagarriak, eraikin ikusgarriak, naturguneak, ostatuak, merkatuak, harresiak... eta baionesak! Baionako jende euskalduna.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



BILBO

Lutxo Egia / Asisko Eta Dom

Bilbon barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Orain kale bat, gero zubi bat, hurrena historia puska bat... hiriko eskulturen inbentarioa eginez abiatuko du gidariak ibilbidea Bilboko baldosetan barrena, hiri zahar, bizi eta erakargarria eraikiz, bilbotarren bizipenen bitartez.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



DONIBANE GARAZI

Nora Arbelbide Lete / Asisko eta Dom


Historia eta kondairaz betetako hiria da Donibane Garazi gida honetan: euskara plazara jalgiazi zuena, Nafarroako hiriburua hau ere, gerraosteko iheslerien aterpea, negozioarako hirigunea, bidaiarien eta historiaren bidegurutzea... Eta bai, Donibane Garazi ederra ere bada, polit-polita, zinez ikusgarria, harri gorritaz eraikia, mendiarte leunaren babesean.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



DONOSTIA

Nerea Auzmendi / Asisko eta Dom


Donostian bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Hiria ezagutzera datozen biloba gazteei izeba donostiarrak egindako ibilbidea. Tabakalerako terrazan abiatuko da, eta Sokamuturra kalekkan bukatu, Loretopera begira. Gune eta zoko baketsuen hiria proposatzen digu, jendetza zalapartatsutik ihesi.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



GASTEIZ

Patxi Zubizarreta / Asisko eta Dom

Gasteizen barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Gidariak Gipuzkoatik iritsitako lagun-taldearekin batera korrituko ditu Gasteizko kaleak, eraikinak, parkeak, plazak, artelanak, hilerriak, tabernak, museoak, auzoak, historia puskak eta istorio osoak. Asteburu bakarrean hiri berdea goitik behera ezagutzeko aukera eskaintzen digu.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



IRUÑEA

Enrike Diez de Ulzurrun / Asisko eta Dom


Iruñea entzutean, berehala Sanferminak etortzen zaizkigu gogora. Baina Iruñeak beste gauza asko ere baditu jaiez gain, eta horietako batzuk biltzen ditu gida honek. Ibilbide bat proposatzen du kalez kale, plazaz plaza, txokoz txoko denetariko kontuak azalduta, bertakoentzat zein bisitarientzat jakingarriak, eta askotan, ezezagunak.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



MAULE LEXTARRE

Allande Sokarros / Asisko eta Dom

Euskal Herrian ekialdeena dagoen hiriburua da Maule-Lextarre, tamainaz txikia, historia eta nortasun handikoa. Zer ziren zinbiteak? Nor da Matalaz? Non da Laminen etxea? Eta ur hotza eta epela batera ematen dituen Laminen iturria? Egun bakarrean burutzeko ibilbidean, lehengo eta egungo Maule-Lextarrerren argazki hurbila jasoko dugu, eta Zuberoan barrena egiteko itzuli polita ezagutuko.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



APAIZ GERRILLARIAREN EZKUTALEKUA

Ander Izagirre / Maite Mutuberria (il.)

Aramaioko mendietan badago sarrera estuko kobazulo bat, azeriak bakarrik sartzeko modukoa. Hantxe ezkutatu zen apaiz gerrillaria, afusilatu nahi zutenengandik ihesi. Kobazuloa ezagutuko dugu, baita Euskal Herriko beste bederatzi txoko eta sekretu ere: erromatarren meatzeak, munstro ehizatarien etxeak, dinosauroak suntsitu zituen meteoritoaren errautsak, Erdi Aroko mezu harrigarriak.

Maila: B2

Orr: 88

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



LAMIA

Josu Lartategi

Lamiak euskal pertsonaia mitologikoak dira. Kontakizun honetan lamia gazte baten ibilaldia ezagutuko duzu. Kostaldefik barrualdera joango da, kaio baten laguntzaz, erreka garbiei zerbait oso arraroa gertatzen ari zaielako: urek kolore gorria dute. Zergatik aldatu da uren kolorea? Zer gertatzen zaie errekei? Lamiak misterioa argitu nahi du. Horretarako, ez da bakarrik ibiliko, ez horixe! Lagun berezi-berezi batzuen laguntza izango du.

Istoria honetan beste garai batean sartukoazara, garai zaharra, antzinakoa, eta pertsonaia mitologikoak ezagutuko dituzu: Tartalo, Galtzagorri, Ipotxak, Herensugeak...

Maila: A1.2

Urtea: 2016

Orr: 48

Prezioa: ~~6,95~~ - 5,90 €



ASTEROIDEA

Zaharren Egoitza leku lasaia da, lasaiegia. Bertan, zaharrek bizitza egiten dute. Hiltzeko oso denbora gutxi falta zaiela uste dute eta horregatik ez daukate itxaropen handirik etorkizunean. Nahikoa da telebista ikustea, jatea, trikotatzea, paseotxoak egitea, lo egitea... eta berriz ere dena errepikatzea. Bisitak ere badituzte, baina oso gutxitan, senideak ez direlako ia inoiz zaharrekin gogoratzen.

Egun batean, ordea, telebistak berri harrigarria eman du: asteroide erraldoia dator lurraren kontra eta munduaren azkena izango da. Une horretatik aurrera, bizitza erabat aldatuko da Zaharren Egoitzako lau atso-agurerentzat, Antontxu, Mikela, Boni eta Eukeniarentzat.

Maila: A2.2

Urtea: 2016

Orr: 48

Prezioa: ~~6,95~~ - 5,90 €



BALEA

Josu Lartategi

Baleak, planeta honetako animalia handienak, arriskuan daude. Azkenak irla bakarti batean bizi dira. Bertan jolastu eta amets egiten dute, bertan maitatu eta atsedean hartu. Arriskua, hala ere, oso hurbil dute, arrantzaleak haien bila doazelako... eta gizakien odol-egarriak ez du mugarik. Baleek ondo dakite hori; horregatik, azken bidaiari ekingo diote. Urrunera joango dira, oso urrunera. Istorio honetan Haundi eta Polt izeneko baleak ezagutuko dituzu: balea zaharra eta balekumea. Horiek izango dira protagonista, kapitain krudel batekin batera. Baleak eta gizakiak aurrez aurre...

Maila: A2.2

Urtea: 2016

Orr: 48

Prezioa: ~~6,95~~ - 5,90 €



ATEJOLEA ETA IZAKI MISTERIOTSUA Beldurrezko ipuinak

Aitor Arana

Beldurrezko bi ipuin

Beldurra. Zer da beldurra?

Izaki misteriotsuen istorio beldurgarriak benetakoak ote dira?

Beharbada ez, eta gure beldurrek sortzen dituzte.

Edo beharbada gure desiren irrikek.

Baina kontuz, beharbada bene-benetakoak dira.

Eta egunen batean mamu bat zure logelan sartu nahian ibiliko da.

Edo beharbada zure desirak betetzeko aukera duzu,

baina hori ez da zuk uste bezain ona...

Bi istorio beldurgarri hauetan bezala.

Maila: A2-B1

Urtea: 2017

Orr: 80

Prezioa: ~~15~~ - 12,75 €



ERDI AROKO EGUNAK

Laida Martinez


Bilbo hiribildu bihurtu zeneko aroan kokatu du Laida Martinezek bere eleberria. Fikziozko lana da, baina pisu handia dute garaiko gertakari historikoek. Besteak beste, portuko gorabeherak eta Diego Lopez de Haro eta Maria Lopez de Haro pertsonaia agertzen dira nobelan.

Maila: B1

Urtea: 2016

Orr: 96

Prezioa: 15 - 12,75 €



IXTEBE PELLOT AZKEN KORTSARIOA

Fernando Morillo Grande

Bizitza batzuk zailak dira sinesten. Hain dira ausart, noble, umoretsu, nekaezinak, existitu daitezkeenik ere ezin dugu ia sinetsi. Baina hor dugu Ixtebe Pellot, azken kortsarioa. Itsas-borroka etengabea, askotan hartu zuten preso. Arriskuz arrisku, sekula etsi gabe, beti egin zuen ihes. Musika eta dantza maite zituen, eta karkaraz erantzuten zion minari. Begietara begiratzen zuen. Horregatik maite zuten lagunek. Baita etsaiek ere! Hemen kontatuko dena benetakoa da, sinesgaitza iruditu arren. Prestatu. Norbait aparta ezagutzeko zorian zaude: Ixtebe Pellot, Euskal Azeria.

Maila: B1

Urtea: 2016

Orr: 72

Prezioa: 15 - 12,75 €



AMAIA UDALEKUETAN

Onintze Goitiz

Gaztetxoentzako abentura liburua ondu du Goitizek, eta Irakurketa Errazeko lanen artean kaleratu Gauminek. Amaia da protagonista: jaiotzez gorra, eta gurasoek gehiegi babesten dute. Ikasturte amaieran, udalekuetara joatekoak dira haren lagunak; Amaiak ere joan nahi du, gurasoen baimenik ez badu ere.

Maila: B1

Urtea: 2015

Orr: 62

Prezioa: ~~15~~- 12,75 €



RIF MENDIETAKO URA

Montse Flores Pallarès

Ahmed gaztea Rubi-n bizi da, Bartzelonatik gertu, baina marokoarra da izatez, Rif-ekoa. Tati klasekide erakargarriaz maitemindu da bere bizitzan lehendabizikoz. Celes bere lagunak kamera bat lapurtzeko eskatu dio. Ahmeden anai zaharrena atxilotze-zentro batean da, lapurtzeagatik, eta berak tentazio horri aurre egin nahi dio. Marokoko ohiturak eta familia kontuak ere ezagutuko ditugu Ahmeden abenturan.

Maila: B1

Urtea: 2014

Orr: 64

Prezioa: ~~15~~- 12,75 €



TXERNOBIL TXIKI BAT ETXE BAKOITZEAN

Ander Izagirre

Txernobilgo istripu nuklearra gertatu zenean, Juliak 13 urte zeuzkan eta aire librean jolasean ibili zen egun osoan. Igorrek 28 urte zeuzkan, soldadua zen eta zentralera lanera korrika joateko agindu zioten. Inork ez zien azalpenik eman. Orain Juliak erreportaje bat idatzi nahi du, Txernobilaren zer gertatu zen eta gaur egun ingurua nola dagoen kontatzeko. Igorri eskatu dio laguntza, katastrofearen garaiaz biek dituzten oroitzapenak biltzeko eta, Txernobil bisitatzen duten bitartean, ondoan lagun bat izateko.

Maila: B1

Urtea: 2014

Orr: 80

Prezioa: ~~15~~ 12,75 €



SANTIAGO BIDEAREN MISTERIOA

Fernando Morillo

Diotenez, Santiago Bideak magia egin dezake ibiltari bakoitzaren baitan. Ulises marinel zaharra da. Bere itsasontzia hondoratu zenean, bera bakarrik atera zen bizirik, eta beldurra hartu zion bizitzari. Kemen, berriz, mutil gaztea eta irribarretsua da. Itxuraz, ezin zoriontsuagoa, bizitzaz eta bere neska-lagunaz maitemindua. Biak elkartuko dira Santiago Bidean, bakoitzak duen promesa sekretua betetzeko asmoz.

Maila: B1

Urtea: 2014

Orr: 80

Prezioa: ~~15~~ 12,75 €



MUSEOKO HILTZAILEA

Josu Lartategi

Nork mehatxatu du eskultorea? Nork hil nahi du eta zergatik? Luigik laguntza eskatu dio Martin Iriberrri ikertzaileari. Diruz txarto zabiltzanean ezin diozu lan-eskaintza bati ezetz esan, nahiz eta etsai batena izan. Horixe gertatu zaio Martini. Lan erraza dirudi hasieran. Sakonago ikertzen hasi denean, ordea, ulertzen ez dituen gauza gehiegi dagoela konturatu da. Istorio beltz honetan Bilbon zehar ibiliko zara, Martin Iriberrri ikertzaile pribatuarekin. Galtzaileen eta irabazleen hiri horretan edozer gertatu ahal da, baita hilketak ikaragarriena ere.

Maila: B1.2

Urtea: 2016

Orr: 48

Prezioa: ~~6,95~~ - 5,90 €



SILABA BEROA!

Zure gaitasun mentalak eta hiztegia jokoan jarriko dituen mahai jolas berria! Erronkek baldintzak betez hitzak idatzi beharko dituzu, baina denbora zure aurka izango duzunez aurkariak baino azkarrago egin beharko duzu.

Edukia: 55 karta | 6 arkatx | Paperezko blok bat | Araudi bat | Euskal Herrian egina euskaraz eta euskaldunentzat.

Urtea: 2024

Prezioa: ~~24~~ - 22€